
e5 proiektua: zer izan den eta nola egin den.

e5 → e3+L

Marko Juanikorena, J. Inazio¹

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
inazio.marko@ehu.eus

E

e5 proiektua (Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen) Eusko Ikaskuntzaren proiektu partehartzailea izan da. Helburua, *Arakatzeko Auzazatiboa*ren metodologian oinarrituta, euskal komunitateak komunitate gisa sei kapitalean (Soziala, Ekonomikoa, Politikoa, Kulturala, Azpiegitura eta Giza kapitalean) egun dituen aktiboak identifikatzea, etorkizunean eduki nahi dituen aktiboak irudikatzea, eta, horietara iristeko arkitektura diseinatzea izan da. Hiru mintegi nagusitan ardatzua: Tailer Auzazatiboa, Sorkuntza Tailerra eta Diseinu Tailerra. Proiektuaren beste erreferente teorikoa *U Teoria* izan da. Horrela, amaieran **e5** proiektua **e3+L** bilakatzea proposatu dugu: Euskal komunitate(k) Etorkizunetik Elkarrekin Lideratzen.

Giltza-hitzak: Komunitatea. Kapitalak. Aktiboak. Arakatzeko-azazatiboa. U-teoria. Polizentrismoa. Sinkronizazioa.

Egun on denoi. **e5 - Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen** izeneko Proiektua hiru urtez luzatu den lana izan da, prozesu parte hartzaile moduan diseinatu eta garatu dena. Gaur, Eusko Ikaskuntzaren Mendeurreneko Kongresu honetan, aurkeztu nahi dugu e5 proiektua zer izan den, nola bideratu den eta zer eman duen, jakinik prozesuaren emaitza ez dela gaur hemen amaitzen, izan ere, hemendik aurrera ere irekita geratzen baita lanean jarraitzeko.

Proiektuaren abiapuntuan kontzeptu bat itxuratu genuen euskalgintzaren uneko testuingurua azaltzeko: **Krisi Aktiboa**. Kontzeptu horretan bereziki aktibo hitza azpimarratu daiteke. Aktibotasuna, izan ere, proiektu, ekimen, ekinbide, analisi, hausnarketa... ugari zeuden proiektuarekin hasi ginenean eta horiek guztiak oso kontuan izan genituen. Oso kontuan, kokatzeko ere zein izan behar zuen Eusko Ikaskuntzaren eginkizuna eta nola enfokatu eta planteatu behar genuen gure proiektu hau.

Horren adibide dugu, esate baterako, eta egun hauetako agendari erreparatzen badiogu, irailean, urrian, azaroan diren, izan diren eta izango diren ekimenak. Zenbait aipatzearen, irailean izan ziren **Hizkuntza eskubideak bermatzeko legearen bidean** izeneko jardunaldiak. Urrian izan da, orain dela hamabost egun, **Euskara batuaren berrogeita hamar**

urteurrenaren biltzarra, baita pasa den astean **Eskola hiztun bila** edota **Lurralde eta hizkuntza** jardunaldiak. Gaur bertan, arratsaldez **Hizkuntza eta genero** jardunaldia izango da, eta bihar **Zubideia** gizarte elkarrizketa. Azaroan izango ditugu **Euskal Soziolinguistika** jardunaldia, edota **Helduen euskalduntze-alfabetatzea aurrera begirako** topaketak, eta berehala badatorkigu abenduan **Euskaraldia**. Hauek dira batzuk, beste hainbat tartean ere izango dira. Beraz, errealitate horretan, errealitate dinamiko horretan kokatzen dugu proiektu hau, eta proiektu hau kokatzerakoan, definitu nahi izan genuen zer egin dezakeen Eusko Ikaskuntzak, umiltasunez baina sendotasunez. Beraz, helburu gisa finkatu genuen proiektu honekin Eusko Ikaskuntzak datozen hamarkadetarako, euskalgintzaren –eta hor jarri dut nik geroztik “**euskal(gizarte)gintzaren**”– aro berria konfiguratzeko laguntzea. Lagundu konfiguratze horretan, nondik? ezagutzatik eta ezagutza horretan marko interpretatibo berri bat landuz, gehituz.

Angelesek bere sarrera hitzaldian hainbat datu eskaini digu. Zorionez, euskararen egoeraren inguruko gero eta datu gehiago dugu. Eta oraindik aski ez badira ere, badaude ikerketak, badaude lanak, badaude erakunde desberdinak lan horiek egiten ari direnak, eta horiek guztiek euskararen egoeraren errealitatearen berri ematen digute. Datu horietan oinarrituz, euskararen egoeraz hitz egin dezakegu gero eta modu objektibo eta zientifikoa.

Aldiz, e5 proiektua planteatzerakoan, begirada aldatu nahi izan genuen. Ez genuen planteatu fokua euskararen egoeraren gain jartzea, izan ere, badagoelako horren inguruan beste hainbat lan, beste hainbat ikerketa. Guk, aipatutako marko interpretatibo berri hori lantzerakoan, errealitatea interpretatzeko eta errealitatea eraikitzeke marko teoriko berriak eta, ondoren errealitate horretan eragiteko, interpretazio molde berriak landu nahi izan ditugu.

Bide horretan, proiektuaren jardunaren gidari izan diren indar-ideia nagusi batzuk definitu genituen hasieratik, **Konplexutasuna** da bat. Gizarte konplexu batean gaude. Duela 60 urteko gizarte eta egungo gizarte ez da berdina, eta 40 urte barru ez da berdina izango, eta geroz eta globalagoa, konplexuagoa, sistemikoagoa da gizarte, eta hor mugitu behar dugu, eta hor, zoritxarrez, soluzio sinple eta linealek ez digute balio.

Polizentrismoa. Gure gizartean gizarte indarrak, gizarte eragileak, asko dira, anitzak dira, eta ekimen fokuak oso ugariak Euskal Herrian zehar barraiatuak, lurralde ezberdinetan eta maila desberdineko instituzio zein gizarte erakundetan; hitz batean, polizentrikoak. Ez daukagu zentro bat edo bi, zentro anitzak ditugu, eragile ugari dauzkagun moduan. Eta errealitate hori hor daukagu, konplexutasunaren barruan, errealitate polizentrikoa. Beraz, oso garbi planteatzen genuen baita ere, etorkizunak aztertzerakoan, soluzioak planteatzerakoan, helburuak finkatzerakoan ezin dugula joan, nolabait, helburu bakar bateratueta. Ezin dutela izan uniformeak, eta, alderantziz, gure gizarte errealitate, gizarte anitz konplexu polizentriko horretan, nolabait, zentzu gehiago hartuko zukeela **sinkronizazioaren** ideiak. Alegia, ipar desberdinak eduki arren, ipar horietan sinkronizazioak bilatzea, eta ez, nolabait, ipar bakar eta uniforme baten bila.

Azkenik, **Komunitatea**, eta hau klabea da. Proiektu honetan kontzeptu hau gakoa izan da. Esan dudanez bezala, ez dugu euskararen egoeraren analisia egin nahi izan. Geure fokua komunitatean jarri dugu, euskaraz garatu nahi duen komunitatean. Zentzu horretan, honako galdera hau izan dugu proiektuaren abiapuntuan: **Zer aktibo (edo baliabide) ditu euskaraz garatu nahi duen komunitateak, bere nahikunde kolektibo horretan komunitate gisa ahaldu eta bere helburuetan aurrera eragiteko?**

Komunitatea, alegia, bere errealitate, egungoa eta etorkizuneko, euskaraz identifikatu, euskaraz irudikatu eta bizi nahi duen, eta erabaki hori daukan euskal komunitatea. Eta, kasu honetan, komunitateaz hitz egiten dugunean, ez gara mugatzen euskaraz hitz egiten duen komunitatera, euskal komunitatea zentzu zabalago batean planteatzen dugu, gizarte garapena bere ardatzak nagusietan euskaraz kontzebitzen duen komunitatearekin identifikatuz. Beraz, hor jarri dugu fokua, komunitatean. Ez euskararen egoeran, komunitatearen baliabideetan baizik. Komunitate horrek egun dituen eta etorkizunera begira planteatu eta eskuratu nahi dituen kapital eta aktiboetan.

Foku aldaketa hau batzuetan zaila egin zaigu, eta prozesuan zehar ikusi izan da. Ez da erraza, errealitate hurbiltzeko begirada desberdina delako. Interpretaziorako, analisisirako subjektua desberdina da, eta hortik gero planteatu daitezkeen analisiak eta analisi horietatik planteatu daitezkeen interbentzioak desberdinak dira. Beste batzuk dira. Ez hobeak ez txarragoak, beste batzuk dira.

Proiektuan zehar hainbat erreferente teoriko-metodologiko erabili ditugu, modeloa egituratu eta kontzeptualki zein metodologikoki sustengatzeko.

Proiektuaren diseinua egituratzerakoan aplikatu dugun erreferentziazko enfoke metodologiko nagusia **Arakatze Apreziatiboa** izan da, **arakatze apreziatiboaren** ikuspegian oinarritutako eraldaketa-hausnarketa parte-hartzailea. Arakatze apreziatiboa eredua, sisteman dauden indarrak apreziatuz eta balioan jarriz, sistemaren muin positiboan zentratzen den arakatze eta eraikitze prozesu kolaboratzaile gisa definitzen da. Horrek zer esan nahi du? Ez garela arazoetan zentratu. Analisia ez da izan zein arazo dagoen eta arazo hori nola soluzionatu erabakitzea, baizik eta zer daukagun identifikatzea. Daukagunaz jabetu, eta daukagun hori baloratu. Lehenengo pausoa hori izan da. Komunitate gisa zer baliabide dauzkagu? Zer aktibo ditugu hainbat kapitaletan? Zer baliabide amesten ditugu etorkizun batean, egun dauzkagun horietan oinarrituta? Eta gero, horretara iristeko, zer arkitektura osa dezakegu?

Talde eragileak hasiera batean hausnarketa asko egin zituen proiektua kokatzeko aipatu dugun gizarte errealtate anitz horretan. Kapitalei buruz hitz egiten hasi ginenean ere, aurre-eskema ugari egin genituen, proiektuaren helburuei eta gure testuinguruari egokitutako eredu bat osatzeko. Bide horretan, Emery Fray eta Cornelia egileek 2006an argitaratutako *Using Community Capitals to Develop Assets for Positive Community Change* proposatzen duten sei kapitalen eredua erreferentzia gisa hartu eta gurera egokitu genuen. Horrela, elkarrekin erlazionatuak dauden sei kapitalen oinarritzko eskema hobetsi genuen, arakatze apreziatiboaren enfoke metodologikoa aplikatuz, kapital horietan euskal komunitateak dituen edota eduki nahi dituen aktiboen analisirako hausnarketa prozesua abiatzeko: **Giza Kapitala, Kapital Soziala, Azpiegitura Kapitala, Kapital Ekonomikoa, Kapital Politikoa, eta Kapital Kulturala**.

Kontzeptuak ere definitu genituen. Hainbat hitz-gako erabiltzen ari ginen, hala nola, komunitatea, kapitala, aktiboa, ... eta proiektuaren testuinguruan kontzeptu horiek zer adierazten zuten ongi zehaztu nahi izan genuen. Horrela:

- Komunitatea. Kontzeptu konplexu eta multidimensionalak. Garapen komunitarioaren ikuspuntu batetik (Eito eta Gomez, 2013; Hillery, 1955; Marchione, 2004), komunitatea giza-talde bat da, espazio/lurraldea, ezaugarri

kolektiboak, harremanak eta interakzio pautak partekatzen dituen, eta bere garapenerako hainbat baliabide eta bere baitatik sortzen diren hainbat nahikunde eta demanda partekatuak ere badituen.

- Euskal Komunitatea. Bere gizarte garapenerako eta sozializaziorako perspektiban, eta hizkuntza aniztasunaren testuinguruan, lurraldeko hizkuntzarekiko (euskararekiko) identifikazioa, sentimenduak, eta jarrera eta portaera aktibo eta positibo komunak partekatzen dituen komunitatea (Hernandez, 2008; Kasares, 2012, 2015; Tejerina, 1992).
- Komunitatearen Kapitala. Komunitateak bere garapenean etorkizuneko helburuak erdiesteko sortu edota eskura dituen aktiboen (baliabideen) multzoa da.
- Aktiboak. Emaizta berriak sortze aldera gara-indarra eduki dezaketen baliabide edota errekurtsoak dira. Aktibo horiek ahalbide berriak agerrarazteko baliatzen direnean, Kapital bihurtzen dira (Emery, Fey eta Flora, 2006). Kapitalen aktiboak izan daitezke ukigarriak (eraikinak, diru baliabideak, argitalpenak, ...) edo ez-ukigarriak (sare sozialak, lidergo ahalmenak, eragin politikoa, ...). Aktibo horiek areagotu edo agortu egin daitezke. Esate baterako, giza-kapitalaren alorrean pertsonen hizkuntza-lidergoak indartzeko inbertsioa egiteak ekar dezake gero pertsona horien gaitasunak eta ahalmenak areagotzea (giza-kapitala), pertsona horiek gizarte sare berriak sustatzea (gizarte kapitala), edo jardun politikoan eragitea eta hizkuntza politikak bultzatzea (kapital politikoa). Aitzitik, aktiboak agortzen direnean, ez dituzte baliabide edota ahalbide berriak sortarazten.

Argitze teoriko-kontzeptual honetan, bildu dugu beste erreferentzia bat, hasiera batean ez zegoena, baina prozesuan zehar agertu diren hainbat hausnarketekin lotuta gerora jaso nahi izan duguna. Proiektuaren bigarren mintegian partaideetako batek idatziz jasota dagoen hausnarketa bat luzatu zuen, bereziki interesgarria, eta niri behintzat zer pentsa eman zidana. Horrela zioen:

“Hizkuntzen teknologiak 2040an zer eskainiko duen aurreikustea ezinezkoa da, baina badakigu egoera ez dela izango gaurkoa, eta irudika ezin ditzakegun zerbitzuak eskainiko dizkigu urte horretan hizkuntza teknologiak. Erronka hau da: munduko hizkuntza

gutxi edukiko dituzte hizkuntza teknologiek eskainiko dituzten zerbitzu premium horiek. Egongo al da euskara klub elitista horretan? Hori da erantzun beharreko galdera. Zer egin behar dugu hurrengo urteotan talde horretan sartzeko?”

Eta galdera horri gehituz, **zer aktibo eraiki behar ditugu horretarako?**

Eszenario hitza erabili izan dugu prozesu honetan, baina etorkizuneko eszenarioen analisia egiterakoan ez dugu prospektiba klasiko baten metodologia erabili. Ez dugu datu kuantitatiboetan, bereziki, oinarritutako etorkizuneko balizko eszenarioen proiektzioarako analisia egin. Beste metodologia bat erabili dugu, beste ikuspegi kualitatiboagoa eta, zendu berri zaigun Jean Michel Larrasquet aipatzen zuen moduan, inpresionistagoa erabili dugu lan hau egiterakoan. Beste gauza batzuen artean honengatik:

2040. urteak zer eskainiko duen aurreikustea ezinezkoa da. Eta denbora-erreferentzia hori jarri baguen ere, 2040a zer izango den, zer-nolako izango den, orain zehazki esatea ezinezkoa zaigu. Hala ere, 2040an kokatu beharra daukagu. Jakin arren ezinezkoa dugula esatea 2040an nolako izango den gure gizartea. Baina han egon behar dugu gaur, jada. Hori horrela, hori ulertzeko beste erreferentzia teoriko bat jaso nahi izan dugu, Otto Scharmerrek (2017) landutako **“U teoria”** rekin zerikusia daukana. Beste hainbat gauzaren artean, egileak esaten du bi ikasketa iturri desberdin daudela. Bata, iraganeko esperientzietatik ikastea litzateke, eta hori garrantzitsua da, baina agian ez aski iraganengandik zeharo bereiziko den etorkizunerantz goazenean, iraganetik etorkizunera lerro zuzenik ez dagoenean, iraganetik gaurkora etorri bai, baina etorkizuna nolako izango den argitzen ez digunean. Beste ikasketa bidea, berriz, etorkizunetik ikasten joatea, agertzen doan neurrian litzateke. Eta etorkizun horretan egon, agertzen doan neurrian guk, komunitate bezala, bertan egon, eta etorkizun horretatik lideratu.

Proiektuaren garapenari dagokionez, Talde Eragilean prestaketa lanetan luze aritu eta proiektuaren diseinua prestatu ondoren, guretzat oso garrantzitsua izan zen guzti horren balidazioa erdiestea. Horregatik lehen Mintegian, proiektua azaldu ostean, proiektu honen balidazioarako galdera luzatu genien bertaratutako partaideei: proiektuarekin bat egiten zuten edo ez, ulertzen zuten ala ez, aurrera bideratzeko modukoa

iruditzen zitzaien ala ez. Hori oso garrantzitsua izan zen, bertan jasotako erantzun positiboek proiektuari aldekatasun sozialaren balioa eman baitzioten. Bai lehenengo mintegian, eta oraindik hobe bigarreanean, puntuazio altuagoak jaso ziren bigarreanean, badirudi aurrera egin ahala hobeto ulertu zela zertaz zihoan proiektua.

Luzatzen ari naiz eta amaitu behar dut. Proiektuaren garapenarekin jarraituz, esan behar da prozesua hiru mintegitan zehar garatu dela. Lehenengo mintegia Tailer Apreziatiboa izan zen. Hor komunitatearen Kapitalen Mapa landu genituen. Jarritako galdera hau izan zen: **Zeintzuk dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak Komunitate-kapital bakoitzean egun dituen aktibo nagusiak?** Betiere mintegi horretan elkartu ziren pertsonak emandako iritziazen arabera. Ez genuen egia ‘unibertsala’ jarri nahi mahai gainean, partaideek emandako erantzun subjektiboa baizik, elkartu ziren pertsonak elkartu ziren moduan eta eman zuten horretan, hori da atera zena eta daukan balioa hori da. Emaiza, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo Aktiboen Mapa izan zen.

Bigarren mintegia Sorkuntza Tailerra izan zen. Bertan, etorkizunean kokatu nahi izan genuen, 2040 urteari begira, 2040 urterako eszenarioak irudikatzen. Jarritako galdera hau izan zen: **Zure ametsaren arabera, zeintzuk/nolakoak dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak kapital bakoitzean 2040. urtean eduki behar dituen aktibo nagusiak?** Emaiza, Komunitatearen etorkizuneko Aktiboen Eszenarioen Konstelazioak izan ziren.

Hirugarren Mintegia, berriz, Diseinu Tailerra izan zen, eta bertan bide orriaren arkitekturaren inguruan lan egin genuen. Jarritako galdera hau izan zen: **2040 urterako irudikatutako kapitalen (aktiboen) konstelazioa eraikitzeko ... zein ekinbide (ekintza) gako definitu ditzakegu?** Emaiza, Etorkizuneko Eszenarioen arkitekturarako Ardatzen Marrazkia izan zen. Mapa horiek guztiak jasota daude eta Eusko Ikaskuntzaren web-orrian argitaratuta dagoen proiektuaren dokumentazioan ikus daitezke.

Azkenik, Kongresuaren gaurko saio honetan hainbat pertsonak beren jakintzatik, ezagutzatik, esperientzietatik eta ikuspegitik sakonduko dute proiektuan zehar agertu diren kapital eta aktibo horietako batzuetan, beti ere proposamen eta planteamendu propositiboak eginez.

Esan behar dut baita ere geure eskemetan sei kapital horien antolaketa ere, nolabait, aldatu egin zela. Hasiera batean sei kapitalak elkar loturik maila berean agertzen zitzaizkigun, baina mintegietan hausnarketekin aurrera egin ahala beste eskema bat agertzen joan zitzaigun, kapitalen bi mailako eskema baten bidez adieraziko litzatekeena. Eskema berri horretan, batetik, kapital gakoak-edo izan zitezkeenak egongo lirateke eta, bestetik, kapital instrumentalak. Zentzu horretan, kapital soziala, kulturala eta giza kapitala lirateke, nolabait, oinarrizko kapitalak, kapital gakoak, nolabait esateagatik; eta kapital politikoa, ekonomikoa eta azpiegiturena izango lirateke aurreko hiru horiek indartzeko kapital instrumentalak.

Analisiak egiterakoan saiatu gara beti irakurketa lineal sinpleak ez egiten, errealtatearen konplexutasunari erantzun asmoz. Hor ariketa zail samarrak ere jarri izan ditugu mintegietan, lotu nahi izan ditugulako kapital eta aktiboen artean egiten ziren hausnarketak. Emaizak ikusi ditugu, hor dauzkagu mapa desberdinak, metodologia eta prozesua. Etorkizunak esango digu noraino izan diren baliagarri.

Eta bukatzeko, proiektuari hasiera batean **Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen** izena jarri genion. Izen luzea da, baina proiektuaren hasierako asmo eta planteamenduari erantzuten zion. Izenari gainera, **e5** izen laburra jarri genion, komunikatiboki askoz errazagoa eta erabilgarriago baita. Baina prozesuak aurrera egin ahala, garbi agertu da beste hitz eta kontzeptu batzuk hartu dutela proiektuaren helburu eta izaera identifikatzeko protagonismoa. Horregatik, nik momentu honetan, formula aldatu egingo nuke: **e5** baino, **e3+L** izendatuko nuke. Komunikazio arduradunak esango dit ezetz. **e3+L** izena ez dela komunikaziorako izen erabilterraza edota praktikoa. Baina uste dut gure proiektuaren oinarrian dauden kontzeptu gakoak hobeto jasoko lituzkeela bigarren izenak. **e3+L: Euskal Komunitateak Etorkizunetik Elkarrekin Lideratzen**. Ez euskara, baizik eta euskal komunitatea(k) azpimarratuz; ez etorkizunera begira, baizik eta etorkizunetik eta etorkizunean kokatuz, elkarrekin noski, eta lideratuz.

Eskerrik asko.

Bibliografia

Eito, A. eta Gomez, J. (2013). El concepto de comunidad y trabajo social. *Revista Espacios Transnacionales* (1), 10-16.

Emery, M., Fey, S. eta Flora, C. (2006). Using Community Capitals to Develop Assets for Positive Community Change. *CDPractice, Issue 13*, 1-19.

Hernandez, J.M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 69, 2008 (4), 27-42.

Hillery, G. A. (1955). Definitions of Community: Areas of Agreement. *Rural Sociology* (20), 111-123.

Kasares, P. (2012). Euskaldun hazi Irunean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintzak eta komunitate aukerak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85, 2012 (4), 143-158.

Marchionl, M. (2004). *La acción social en y con la comunidad*. Zaragoza: Certeza.

Scharmer, O. (2017). *Teoria U. Liderar desde el futuro a medida que emerge*. Barcelona: Editorial Eleftheria.

Tejerina, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madrid: CIS – Siglo XXI.

Oharrak

1. Eusko Ikaskuntzako e5 proiektuaren arduradun zientifikoa.

Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalak

e5 proiektu honen xedea Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzea izan da, jomuga 2040. urtean jarrita.

Eszenario horien irudikatzea modu propositibo eta baikorrean burutu nahi izan dugu, gure buruari hiru galdera eginez:

- Lehenengoa: Zein kapital eta aktibo ditu gaur egun euskaraz garatu nahi duen komunitateak euskaraz garatu ahal izateko?
- Bigarrena: Zein da 2040 urteari begira amesten dugun etorkizuna; zeintzuk kapital eta aktibo izan nahi ditugu ordurako eskura?
- Hirugarrena: Eta amestutako eszenario horretara heltzeko, zeintzuk izan behar dute bide orriak?


2017-2018an burutu diren hiru mintegietan ideia ugari eta interesgarriak agertu dira. Galdera bakoitzaren emaitzak kapitalen mapetan jaso ditugu:

1. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa.
2. Etorkizunerako irudikatutako komunitatearen kapitalen (aktiboen) eszenarioen konstelazioa 2040ko jomugan.
3. Irudikatutako kapitalen (aktiboen) konstelazioak eraikitzeko ekinbide gakoak mapa.

“Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Berdea”-n e5 lan-ildoaren ezaugarri nagusiak eta diagnostikoaren lehen mapa (‘Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa’) jasotzen dira. Lehen emaitza horretatik abiatuta, kapital bakoitzeko, hurrengo bi mapak landu ziren: Etorkizunerako irudikatutako eszenarioen konstelazioa eta Konstelazioak eraikitzeko ekinbide gakoak mapa.

Mapa guztiak Eusko Ikaskuntzaren web-orrian jasota daude proiektuaren atalean (eusko-ikaskuntza.eus).

Prozesuan zehar jasotako ekarpen guztietatik, kapital bakoitzeko bi aktibo nagusi azpimarratu eta, ondorengo orrietan, modu laburrean azaltzen ditugu.



Giza kapitala

Giza kapitalean, herritarren artean zeintzuk aktibo ditugun galdetu diogu gure buruari, baita etorkizunari begira zeintzuk aktibo amesten ditugun ere.


- Euskaldun aktibo
 - Euskoherente
 - Euskahaldun
 - Euskaltzale motibatuak
- Herri ekimenak
 - Erdaldunen babesak

Asko dira ditugun aktiboak:

- Euskara ikasi duten zein ulertzen duten herritarrek, egunerokoan euskara darabiltenak, arnaguneetan bizi direnak, euskararekiko jarrera baikorra dutenak, izan hemen jaiotakoak zein kanpotik etorritakoak...
- Gainera, minoria aktibo indartsu bat ere badaukagu: euskaltzale motibatuak, militanteak, profesional kontziente eta aktiboak.
- Eta euskaldunak zerbait badaukagu antolatzeko eta herri ekimenean jarduteko borondate eta ahalmena da.

Etorkizunari begira,

- Herritarren zati handi bat euskaldun aktibo, “euskoherente”, “euskahaldun” izango den gizartea amesten dugu, sare formal zein informaletan eta konplexurik gabe, asertibitatez eta enpatiaz euskaraz hitz egingo duena.
- Eta erdaldunak direnen artean ere gehiengoa aliatua izatea amesten dugu. Euskara jakin ez arren, euskarari eta euskaraz bizi nahi duten herritarrei babesa eskainiko diete.



Kapital Ekonomikoa

Ekonomia, oro bat, eskaria eta eskaintzaren arteko harremana edo oreka da. Hau da, bi elementuk mugiarazten dute: kontsumitzaileek edo merkatuak, batetik, eta ekoizleek, bestetik. Ideia hau abiapuntutzat hartuta, eta euskararen unibertsoa ekarrita, kapital ekonomikoaren mapatik, bi ideia edo aspektu nabarmendu genitzake:

- **Merkatua** eskaria izango litzatekeena
 - Euskaraz kontsumitzeko gaitasuna
 - Balore bereizgarria
 - Hizkuntza industria eta finantza-sarea
- **Lan-mundua** edo eskaintza, merkatua elikatuko duena
 - Euskararen aldeko enpresa eredugarriak
 - Lan munduan arautua
 - Ekonomi globalizatuan nortasun propioa

Kapital ekonomikoaren oinarriak “euskararen” eskaria eta “euskararen” eskaintza direla onartuz gero, indartu nahiko genituzkeen guneak zeintzuk diren aisago irudikatzen ditugu:


Merkatuari dagokionean (eskariari dagokionean), hau da amestu duguna:


- Batetik, euskaraz kontsumitzeko gaitasuna eta nahia izango duen masa kritikoa izatea: hau da, euskararen ezagutza nahikoa izango duen biztanleria, eta produktua erakargarria eta praktikoa egiten zaiolako kontsumituko duena. Hau da: “kontsumitzaile euskaldunak”.

- Bestetik, euskara balore bereizgarria izatea, besteengandik bereizten gaituen faktore desberdintzailea. Beste produktuen artean, euskarak ere leku bat izatea merkatuan, leku propioa (marka propioa eta posizionamendua).
- Eta azkenik, eskaria eta eskaintza sustatuko eta babestuko dituen hizkuntza industria eta finantza-sarea izatea, hau da, arestian aipatutako marka eta posizionamendua landuko duen marketin politika.

Lan-munduari dagokionean (edo eskaintzari dagokionean), hau da amestu duguna:

- Batetik, eredugarri diren enpresek euskararen aldeko apustua egin dutela. Eta zergatik egin dute euskararen aldeko apustua? Errentagarria delako: gehiago saltzen dutelako edo euskararen markak merkatuan bereizgarri egiten dituelako.
- Bestetik, legez finkatuta dagoela lan munduan sartzeko, batetik, hizkuntza profilen eskakizunarekin bete behar dela eta, bestetik, gazteei lanean euskaraz jardun ahal izateko ingurunea (lantaldea, lanabesak, etab.) bermatzen zaiela.
- Eta azkenik, ekonomia globalizatuan nortasun propioa erakusteko, euskara balore partekatu gisa kontsideratua dagoela.





Azpiegitura kapitala

Azpiegitura kapitalaren etorkizuneko aktibo nagusiak irudikatzeko ariketatik bost ideia azpimarratu nahiko genituzke:

- **Administrazioa**
 - Motor eta eredu
- **Irakaskuntza**
 - Euskaldunen fabrika
- **Herrigintza**
 - Indartsu
- **Lan munduan**
 - Enpresa euskaldunak
 - Ikasketak euskaraz
- **Komunikazioa**
 - Hizkuntza teknologikoak
 - Internet
 - Teknologiak


Administrazioa, batetik, motorra da: erabaki estrategikoak hartzen ditu, sostengua eskaintzen du eta eragiteko gaitasuna du, beste sektoreetan. Bestetik, eredu da euskararen biziberritzean, barne funtzionamenduan eta besteekin harremanetan.

Herrigintza sendo bat irudikatzen dugu. Sare eta elkarlan iraunkorra daukan mugimendua da eta herrigintzako beste mugimendu batzuekin konektatuta dago. Eredu ireki eta eraginkor batetik lan egiten du, administrazioaren lanaren osagarri egokia osatuz.

Irakaskuntzak euskaldunak sortzen ditu, euskaldun aktibo eta ahaldunduak. Eta lan hori modu positibo batean betetzen duela errekonozitzen zaio. Lanbide heziketak ere salto esanguratsua eman du eta profesionalen formazioa eta baliabideak eskaintzen dizkie, euskaraz lan egin ahal izateko.

Lan munduan euskarak zerbitzu eta lan hizkuntza moduan leku esanguratsua lortu du. Produktu eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen eta lan euskaraz egiten duten enpresen ekosistema indartsua dago.

Komunikazioaren arloan, hedabide guztietan hizkuntza aniztasuna dagoen errealitate bat irudikatu da. Denetan denetik. Teknologiari dagokionez, euskal komunitatearen produkzioa 1. dibisioan egon ez arren leku garrantzitsua dauka. Unibertsitatea inplikaturik dago teknologiak euskaraz garatzeko eta baita hizkuntza teknologien garapenean ere. Interneten indarra daukan euskal komunitate bat irudikatu da.



Kapital Soziala

Kapital sozialean 2040rako irudikatutako aktibo nagusienak bitan banatu ditugu:

- **Hiztun komunitate normalizatua**
 - Euskara erakargarria
 - Esparru guztietan presentzia
 - Atxikimendua
- **Euskalgintza**
 - Hiztun ahaldunak
 - Mugimendu boteretua
 - Plangintza sektorialak

Hemendik hogeitaz urtetara irudikatzen dugun gizartearen **hiztun komunitate normalizatuago** bat ikusten dugula esan dezakegu. Hiztun komunitate horrentzat euskara **erakargarria** da, prestigioa dauka euskararen erabilerak eta ondorioz, erreferentzialtasuna lortu du. Esaterako, gazteentzat erreferente euskaldun ugari aurkitzen dira. Guzti honegatik, euskara ikasteko arrazoi nagusia integratzailea da.

Euskarak **esparru asko irabazi** dituela amestu dugu. Euskara ez hizkuntza akademikoa eta gizartearen sektore guztietara zabalduta da. Erakunde publiko zein pribatuaren euskararen presentzia zabala da. Benetan, hizkuntza hauturako aukera erreala bihurtu da.

Euskara **identitatearen erdigunean** kokatu da. Norbanakoen nahia elikatzen duen eta erakargarritasun berriak sortzen dituen ekosistema bat sortu da euskararen inguruan. Horrek atxikimendua sendoa ekarri du. Noski, honek guztiak euskararen jarrera, gaitasun eta erabilera datuetan eragin du eta proiektzio tendentzien gainetik kokatzen dira datu errealek.

Euskalgintzak mugimendu sendoa bat eraiki du. **Hiztun ahaldunak** daude mugimenduaren zentroan eta boterea duten erakundeetan ere euskaldun ahaldunak daude. Gazteak kolektibo honen erdigunean daude eta bizinahia elikatzen duen kultur sormena, jardura eta kontsumo bizia dute. Militantzia berritua ageri da.

Euskalgintzak lobby lana betetzeko indarra dauka. Botere ekonomiko eta politikoari bidea seinatzen dion mugimendu egituratua da eta esparru pribatuaren eragiteko gaitasuna dauka. **Mugimendu botere** bat dela esan dezakegu.

Euskalgintzak **plan sektorialak** bultzatu ditu. Plan hauek sektore bakoitzaren eguneroko kudeaketan integratuta daude eta lan hauek aurrera eramateko ezagutza metodologiko aurreratua dago.